



BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, EUSKADIKO UDALERRIETAN MUGIMENT TXARTELAREN PROIEKTUAREN LEHEN FASEA EZARTZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEARI BURUZKOA

1. - KONTRATUAREN XEDEA

Euskadiko Kirolaren Legeak (14/1998, ekainaren 11koak), bere printzipio gidarietan xedatzen duenez, kirola *interes publikoko gizarte-jarduera da, pertsonak bete-betean prestatzeko eta garatzeko, bizi-kalitatea hobetzeko eta norbanakoak eta gizartea ondo izateko lagungarria*. Printzipio gidari horietako bat da *administrazioen eta entitate pribatuen artean lankidetzaz arduratsua egotea kirol-arloan eta, era berean, kirol-instalazioen ahalik sarerik onena planifikatzea eta sustatzea*.

Legean eta haren printzipio orokorretan xedatzen denarekin bat, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak Mugiment txartelaren proiektu pilotua garatu du. Mugiment txartelaren proiektuaren bidez, EAEko herritarrei EAEko udalerrietako kirol-instalazioak erabiltzeko aukera eskaini nahi zaie, guztietan txartel bakarra erabilita. Txartel hori proiektuaren kide diren udaletako kirol-zentroetako batean eskuratu beharko da lehenik. Zerbitzu hau koordinatu eta kudeatzeko aplikazio informatiko bat erabiltzen da; Kirol-instalaketak eta Euskadiko hiritarrak bat egiteko balio duen aplikazioa da.

Proiektuak erkidegoko udalerriri guztietara iristea du xede. Horretarako, udalerririak erakartzeko prozesua egoki gauzatu behar da, Mugiment txartelaren aplikazio informatikora egokitzeko. Proiektuaren munta dela eta, faseka egingo da.

Helburua lortze aldera, udalerririak erakartzeko eta Mugiment txartelaren proiektua ezartzeko proiektu pilotua jarri zen martxan 2017an. Proiektu pilotu horri esker, gaur egun, Bilbo Handiko ezkerrean ia osoa Mugiment txartelaren bitartez konektatuta dago; bederatzirako udalerriri daude proiektuan erabat integratuta, eta Mugiment txartelaren urteko erabilera-fluxua 25.000 aldikoa baino gehiagokoa da.

Proiektuari jarraipena emateko, udalerriri gehiago ekimenari atxikitzeko eta EAEko herritarrei zerbitzu zabalagoa emateko, proiektuaren lehen fasea jarri nahi da abian. Horretarako, enpresa bat behar da udalerriri gehiagotara iritsi, eta horiek Mugiment txartelaren plataforman sartzea lortzeko. Lehen fasean, EAEko herritarren % 40arengana iritsi nahi da. Enpresa adjudikaziodunari, besteak beste, proiektuaren lehen fasea diseinatzea eskatuko zaio, eta enpresak berak proposatuko du proiektua hedatzeko eremua.

Aurreko guztia laburbilduz, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren nahia da, "Mugiment txartela" proiektuaren lehenengo fasea martxan jartzea.

2.- "MUGIMENT TXARTELA" PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

"Mugiment txartela" proiektuak hainbat elementu ditu proiektua aurrera joatea eragiten dutenak eta Euskadiko ahalik eta herri gehienetara heltzea ahalbidetuko dutenak. Ondorengo lerroetan deskribatzen da proiektua:

2.1. "Mugiment txartela" hitzarmena:



Euskal instituzioak "Mugiment txartela" proiektura atxikitzeko aukeratutako bide administratiboa Hitzarmen bidezkoa izan da. Hitzarmenaren izapidetza martxan dago eta 2019ko azken hiruhilekoan sinatzea aurreikusten da. Hitzarmen honen parte izango dira: Eusko Jaurlaritza, hiru Fori Aldundiak eta jada proiektuan integratuta dauden udalerrriak. Institutuzio guztien arteko harremana formalizatzea eta proiektuaren inguruan lanean jarraitzea du helburu hitzarmen honek.

Hitzarmen hori oinarri hartuta sortuko da "ordain-poltsa", hau da, proiektuari atxikitako udalerrrien kirol-instalaketaren erabileragatik sortu daitezkeen galerak ordaintzeko funtsa (diru-zorro gisakoa).

Proiektuaren erabileren inguruko balorazio bat egingo da urtero, eta proiektuko udalerrri bakoitzak, haren instalazioen erabileragatik, jasandako irabazi edo galera kalkulatu da. Balorazio horri esker jakingo da udalerrri bakoitzari dagokion kalte-ordaina zein den. Aurreko guztia, hitzarmena oinarri hartuta.

2.2. Baliabide materialak:

- Webgunea:

"Mugiment txartela" proiektuak webgune bat dauka zeinetan agertzen diren proiektuaren nondik norakoak eta zalantza nagusien erantzunak.

- Aplikazio informatikoa:

- o Plataforma digital batean txertatzen da proiektuaren parte diren udalerrietako kirol-instalaketaren kirol-eskaintza guztia. Kirol-eskaintza horretan agertuko dira: kirol-jardueraren deskribapena, ordutegia eta "Mugiment txartelaren" erabiltzaileentzako kostua.

- o "Mugiment txartela" APParen bidez kontsultatuko da plataforma.

- "Mugiment txartela" txartel birtuala:

- o Proiektura atxikitako kirol instalaketetako erabiltzaileek, beren telefono mugikorretan deskargatuko dute "Mugiment txartela" APPa; ondoren, erabiltzaile bakoitzak bere kontu pertsonala sortu beharko du.
- o Aipatutako kontu pertsonalaren bidez, erabiltzaileek erabilgarri dauden kirol-jardueren berri izango dute, proiektuko edozein kirol-instalazioaren eskaintza ikusiko dute eta aukeratu, eta gaitasunaren bat egotekotan, aplikaziotik bertatik ere ordainduko dute. APPak berak aukera emango du erabiltzaileek aukeratutako kirol-jarduera "erosteko", kasu batzuetan gaitasuna ekarriko duena eta beste batzuetan ez.

**** Aipatutako baliabide horiek, egun "Kirol txartela" izenpean ageri dira, eta enpresa esleipendunari egokituko zioa berau kudeatzea, aplikazioaren izena aldatuz eta edukiak eguneratuz.*

2.3. Udalerrriak erakartzea eta atxikitzea "Mugiment txartela" proiektuan

- Erakartze prozesuaren antolakuntza:

Udalerrriak "Mugiment txartela" proiektura atxikitu aurretik, "udalerrrien integrazioerako plana" egingo da, hau da, udalerrrien eskualde bat aukeratu eta udalerrri horien integrazioerako erritmoa ezarriko da. aurkeztuko dute, horien erakartzeko prozesua



definituaz, ondoren, kontratua esleitutakoan jarraituko duten bidea ezagutzeko. Adibidez, "proiektu pilotu" deritzona Bizkaiko *ezkerraldean* burutu da, eta horri esker, udalerrietako erabiltzaileentzat erabilgarria izan da proiektua, hitzartutako erritmoan atxiki direlako udalerrri horiek, hurbiltasun logika jarraituz. Ez luke zentzurik izango Bizkaiko *ezkerraldeko* udalerrri bat eta Gipuzkoako *Goierrialdeko* beste bat batera atxikitzea proiektura.

- **Udalerrriak proiektura erakartzea:**

Eusko Jaurlaritzak, bere eskumenean oinarri eta koordinazio lanak egikaritzen, bere gain hartu du udalerrriak "Mugiment txartela" proiektura erakartzeko lana. Prozesua udalerrrien nahien araberakoa izango da, eta proiektuaren aurrean udalerrriek izan dezaketen jarreraren araberakoa. Lehenengo kontaktua udalerrriko kirol-teknikariekin burutuko da, ondoren, arduradun politikoeekin.

- **Udalerrrien atxikipena eta horien kirol-eskaintzaren integrazioa:**

o **Hitzarmenera atxikitzea**

Udalerrrien integrazioaren lehenengo pausoa, hitzarmena sinatzea eta haren klausulak onartzea izango da. Behin hitzarmena sinatutakoan, udalerrriak bere hiritarren eskuetan jarriko du "Mugiment txartela" proiektuaren barnean eskainitako zerbitzua.

o **Integrazio informatikoa**

Udalerrriaren kirol-eskaintza "Mugiment txartela" plataforma informatikoan integratuko da, txartel birtualaren edozein erabiltzailek eskuragarri izan dezan. Aipatu behar da, udalerrriak berak kontrolatuko duela beti bere kirol-eskaintza, hau da, udalerrriak erabakiko du bere zein kirol-zerbitzu sartuko dituen plataforman "Mugiment txartelaren" erabiltzaileek horietara joateko aukera izan dezaten. Udalerrriko edozein unetan eskaintza hori aldatzeko aukera izango du, baita zerbitzuen erabilera kupoak aldatzeko aukera ere.

- **Kirol-instalazioetako langileen prestakuntza:**

Udalerrria eta haren kirol-eskaintza proiektuan integratu ondoren, udalerrriko kirol-instalazioetako langileei formakuntza eskainiko zaie proiektuaren nondik norakoak ezagutu ditzaten eta aplikazio informatikoa erabiltzen ikas dezaten, Aldi berean, formakuntza sesio horretan, kirol-instalazioetako erabiltzaileen beharrak nola konpondu erakutsiko zaie.

- **Proiektuaren publizitatea**

Proiektuan integratzen diren udalerrietan, "Mugiment txartela" proiektua ezagutarazteko eta hiritarrak haren erabilerara bultzatzeko publizitate-kanpaina egingo da.

- **Erabiltzaileek aplikazioa jaitsi eta kontua sortzea**

Proiektuan txertatutako kirol-instalazioetako erabiltzaileek, "Mugiment txartela" aplikazio informatikoa jaitziko dute eta kontu pertsonal bat egingo dute kirol-zerbitzua erabiltzen hasteko. Kontu pertsonala egindakoan, erabiltzaileen datuak egiaztatuko dira eta kontua baliozkotuko da.

Baliozkotu ondoren, pertsona hori "Mugiment txartela" plataforman eskainitako kirol-zerbitzuak erabiltzen hasi ahalko da; aurretik aipatu gisa, erabiltzaileek plataforma

digitalaren bidez ikusiko dute eta kirol-zerbitzuek gainkosturik baduten, eta izatekotan, aplikaziotik bertatik ordaintzeko aukera izango dute.

2.4. "Mugiment txartela"-ren lan informatikoak.

"Mugiment txartela" proiektuaren mantenu informatikoaren funtsa izango da edukien mantenua eta eguneratzea, bai webguneko edukiena, baita APPkoena ere, eta zerbitzariaren mantenu orokorra. APPko edukien mantenuak eta eguneratzea bere gain dakar, programan txertatzea kirol-eskaintzaren eguneraketak, eskaintzen diren zerbitzuak eta azken horien eguneraketak.

2.5. Proiektuaren erabiltzaileentzako arreta-zerbitzua

Azkenik, "Mugiment txartela" proiektuak arreta-zerbitzua eskaintzen die erabiltzaileei eta kirol-instalazioetako profesionali. Eusko Jaurlaritzaren eta enpresa esleipendunaren artean hitzartuko dira arreta-zerbitzuaren ordutegiak, telefonoz zein posta elektronikoz erantzuteko. Aipatu behar da, arreta-zerbitzuaren funtsa proiektua udalerrian jarri eta lehenengo asteetan izaten dela, profesionalak eta erabiltzaileak "Mugiment txartela"-ri neurria hartu arte sortzen baitira arazo nagusienak. Behin proiektuaren funtzionamendua ulertutakoan, ez da bestelako arazorik gertatzen eta arreta-zerbitzua arinagoa izaten da.

3.- "MUGIMENT TXARTELA" PROIEKTUAREN LEHENENGO FASEA EZARTZEKO ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

Goian aipatu den gisa, "Mugiment txartela" proiektuaren proiektu pilotua martxan jarri da eta Bizkaiko 9 udalerrri batu dira. Hortik harago, Autonomia Erkidego guztira proiektua zabaltzeko nahi denez, "proiektuaren lehenengo fasearen ezarpena" burutu nahi da. Enpresa lizitatuak plan bat aurkeztu beharko dute, proiektuaren ezarpen prozesua deskribatuz, nondik zabalduko den eta zein epetan burutuko duen proposatutako herri horiek proiektura erakartzea eta txertatzea.

UDALERRIAK ERAKARTZEA ETA ATXIKITZEA "MUGIMENT TXARTELA" PROIEKTURA	
ANTOLAKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> - Erakartze prozesuaren antolakuntza: Enpresa lizitatuak "udalerrien integrazioarako plana" aurkeztuko dute, horien erakartzeko prozesua definituz, ondoren, kontratua esleitutakoan jarraituko duten bidea ezagutzeko.
ERAKARTZEA	<ul style="list-style-type: none"> - Udalerriak proiektura erakartzea: Udalerriko teknikariekin harremanetan jarriko da enpresa esleipenduna, eta ondoren, arduradun politikoekin. Proiektua ezagutarazteko bilerak egingo dira eta udalerria bertan integartzeko simulazioa egingo da. Horretarako, enpresa esleipendunari dagokio proiektuan interesa erakutsi duten udalerrietara joatea.
ATXIKITZEA	<ul style="list-style-type: none"> - Udalerrien eta haren kirol-eskaintzaren integrazioa: <ul style="list-style-type: none"> o Hitzarmenean atxikitzea Hitzarmena sinatzeko koordinazioa burutu eta hitzarmena sinatzeko data hitzartuko da. Udalerriko arduradunari hitzarmenaren aspektu garrantzitsuenak argituko zaizkie eta sinatu aurretik sortzen diren



	<p>kontuetan lagunduko zaie.</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Integrazio informatikoa Udalerrria bera eta eskaini nahi dituen Kirol-zerbitzuak altan emango dira aplikazio informatikoan. Edozein unetan aldatu daitezke eskaintzen diren hasierako kirol-zerbitzuak.
FORMAKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> - Kirol-instalazioetako langileen formakuntza: Formakuntza-sesioak eskainiko zaizkie kirol-instalazioetako langileei. Formazio horren helburua da, langileek "Mugiment txartela" proiektua ezagutzea eta haren aplikazio informatikoa erabiltzen ikastea. Modu honetan, instalazioetako langileak izango dira erabiltzaileen lehenengo erreferentzia. Langile horiengana zuzenduko dira sistema berriaren erabilpenak ekar lekieken arazoak eta zalantzak argitzeko.
PUBLIZITATEA	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektuaren publizitatea: Enpresa esleipendunak proposatutako publizitate-kanpaina burutuko da kasu bakoitzean. Udalerrri bakoitzaren atxikitzearekin batera, "Mugiment txartela" proiektua ezagutaraziko zaie udalerrri horretako herritarrei.
"MUGIMENT TXARTELA" PLATAFORMAREN LAN INFORMATIKOAK	
<p>"Mugiment txartela" proiektuaren mantenu informatikoa ondorengo lanak burutzea dakar:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Webguneko edukien mantenua eta eguneratzea. - APP-aren (iOS/Android) edukien mantenua eta eguneratzea. - Zerbitzariaren administrazioa <ul style="list-style-type: none"> ○ Monitorizazioa ○ Lizentzien izapidetza ○ Datu-baseen aldizkako segurtasun-kopiak. ○ ".eus" domeinuaren kudeaketa ○ SSL segurtasun-ziurtagiriaren kudeaketa. ○ Posta-kontuen kudeaketa - Markets-en eskakizun tekniko berrietara egokituko da APPa. - Euskadiko hiriburuetako sistema informatikoen eta "Mugiment txartela" aplikazioaren arteko interkonexioa egingo da, ticketingean integratutako web-zerbitzu eta QR kodeekin. 	
PROIEKTUKO ERABILTZAILEENTZAKO ARRETA-ZERBITZUA	
<ul style="list-style-type: none"> - "Mugiment txartela"-ren erabiltzaileei eta kirol-instalazioetako langileei arreta telefonikoa eskaintzea. - Posta elektronikoko bidez erantzutea - Eskaintako arreta-zerbitzuaren inguruko hilabeteroko txostena. 	

4.-BALIABIDE MATERIALAK



Esleipendunak jarri beharko ditu zerbitzua emateko behar dituen makinak, tresnak eta materialak.

5.- ZERBITZUA EMATEKO TOKIA

Prestazioak kontratistaren egoitzan emango dira, proiektuaren parte diren herrietara egingo dituen joan-etorriak salbu. Modu honetan, enpresa esleipenduna izango da udalherrietara mugituko dena, baita herrietako kirol-instalakuntzetara joango dena ere.

6.- GIZA BALIABIDEAK

Enpresa esleipendunarekin kolaboratzen duten pertsona guztiak haren menpe egongo dira erabat, berdin izanik zergatik edo zer dela-eta laguntzen dioten edo eten gabe edo aldi baterako laguntzen dioten; funtzionalki eta organikoki ere haren menpe egongo dira. Hortaz, ez dute inolako lan-harremanik izango Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin. Enpresa esleipendunak bere egin beharko ditu indarrean den legediak eragiten dituen erantzukizunak edota gizarte-arloko, lan-arloko edo zerga-arloko kostu guztiak; Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, ostera, ez du inolako erantzukizunik izango, arlo horietan.

Ondorioz, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ez du inolako erantzukizunik izango, hirugarrenei kalterik eragiten badie zer egiten duten edo zer egiten ez duten enpresa esleipendunaren legezko ordezkariak, laguntzaileak (berdin izanik zertan laguntzen dioten) edo harentzat lan egiten dutenek.

Halaber, lan-arriskuen prebentzioaren alorrean indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu enpresa esleipendunak.

Gainera, enpresa esleipendunak baldintza hauek bete beharko ditu:

- Produkzio-erakunde propioa izatea, beharrezko baliabide materialak eta pertsonalak izatea, eta baliabide horiek erabiltzea kontratatutako jarduera garatzeko.
- Bere gain hartzea enpresa-jardueraren garapenak dakartzan arriskuak, betebeharrak eta erantzukizunak.
- Langileek garatzen duten lana zuzenean antolatzea eta zuzentzea, eta, bestalde, langile autonomoen kasuan, lana autonomiaz eta erabateko erantzukizunez egitea, administrazioaren antolakuntza- eta zuzendaritza-esparrutik at.

7.- KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK

SPKLren 202. artikulua xedatzen duenari jarraikiz, honako Lege honen aginduak errespetatuta egingo da kontratua: *4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa*. Horren ildotik, enpresa kontratatzaileak genero-ikuspegia txertatuko du lana egin eta aurkezterakoan, eta hizkuntzaren erabileran sexu-diskriminazioko elementuak saihestuko ditu Administrazioarekiko edo dopinaren aurkako prozedura bateko interesdunekiko komunikazioetan.



8.- DATUEN KONFIDENTZIALTASUNA

Kontratista behartuta dago kontratuaren edukia isilik gordetzera, eta konfidentziasunez lantzeraz eskura dituen datu guztiak pertsonalak izan zein ez izan. Alde horretatik, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalei buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren aginduak eta hura garatzen duten gainerako arauak bete beharko ditu zorrotz. Era berean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua bete beharko da (2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua, Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra, indargabetzen duena), bai eta hura garatzeko araudia ere. Konfidentziaz joko dira enpresa esleipendunak kontratu honen bidez ezagut ditzakeen datu guztiak, eta isilpean gorde behako dira. Kontratua suntsiarazteko kausa izango da isilik egon beharra urratzea; gainera, horrek dakartzan kalte eta galerek ondorioak izango dituzte.

Enpresa esleipendunak ezin izango du aplikatu edo erabili kontratuaren ondorioz lortu duen datu pertsonalik ez bada kontratuaren xederako; eta datu horiek ezin izango dizkio inori laga, ezta gordetzeko ere.

Kontratazioak kontratista izaera pertsonaleko datuetara sartzea badakar, eta datuon tratamenduaren arduraduna erakunde kontratatzailea bada, kasu horretan hura hartuko da tratamendu-eragilezat.

Kontratu honek arautzen duen prestazioa eman eta gero, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari eman beharko zaizkio erabilitako datu pertsonalak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailak 5

Jon Redondo Lertxundi
JARDUERAFISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARIA

